



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ***
JAUNAK GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOAREN
LEHENDAKARITZA BEHIN BETIKO IZENDATZEARI DAGOKIONEZ ETA
FEDERAZIO HORRETAKO HAUTESKUNDE-BATZORDEA IZENDATZEARI
DAGOKIONEZ JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.**

Espedientea: 23/2016 zenbakia

AURREKARIAK

LEHENA.- ***** jaunak, Gipuzkoako Atletismo Federazioaren SS 19451 zenbakiko lizentzia duenak, atleta gisa, errekurtsoa jarri du postetxean 2016ko urriaren 10ean eta errekurtso hori 2016ko urriaren 14an erregistratu da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean 23/2016 zenbakiarekin.

2016ko urriaren 11n akatsen zuzenketa bat jarri zuen postetxean, zeinetan Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hitzez hitz eskatzen zion *“aurkeztutako idazkia onar zezala eta Gipuzkoako Atletismo Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 19an egindako bilera bikoitz paraleloan (14. eta 15. aktak) hartutako erabakien aurkako ERREKURTSOA jarrita eduki dezala eta beharrezkoak diren legezko izapideak egin ondoren, errekurtso hori baietsi dezala, eta, horrenbestez, ERABAKI DEZATELA Gipuzkoako Atletismo Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 19an hartutako erabakia, ***** andrearen hautagaitza GAF federazioaren lehendakari izendatzen duena behin betiko, eta Gipuzkoako Atletismo Federazioaren hauteskunde-batzordeak GAF federazioaren hauteskunde-batzorde berria eratzeke 2016ko irailaren 19an hartutako erabakia deuseztatzea”*.



BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsu horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 16.4 artikuluan oinarrituta, eta espedientea eskatu zion Gipuzkoako Atletismo Federazioari (aurrerantzean, GAF). Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten eginbideak aurkezteko aukera emanez.

HIRUGARRENA.- GAFek igorritako espedientea jaso da, eta bertan, bere alegazioez gain, hauteskunde-prozesuan sortutako dokumentazioaren kopia aurkeztu du.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Ekainaren 11ko Euskadiko kirolari buruzko 14/1998 Legearen 25.1.j) artikulua eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuaren 14.2.j) artikulua xedatzen dutenaren arabera, euskal federazioek eta lurralde-federazioek, besteak beste, federazioko hauteskunde-prozesuen kontrolaren izaera administratiboko funtzio publikoa betetzen dute. Aipatutako 16/2006 Dekretuaren 14.4 artikuluan xedatzen da funtzio publiko hori betetzeko egiten diren egintzei errekurtsua jar dakiekeela Lurralde Historikoei edo Eusko Jaurlaritzari dagokion organoan, eta horren ebazpenak administrazio-bidea agortuko duela.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ekainaren 11ko Euskadiko kirolari buruzko 14/1998 Legeak 138. artikuluan, eta aipatutako batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak 3. artikuluan emandako eskumenak ditu.



Kirol-federazioen hauteskundeei dagokienez, aipatutako 14/1998 Legearen 138.b) artikuluari eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluari jarraituz, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumena da «*Kirol-federazioetako hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzea eta ebaztea*».

HIRUGARRENA.- Lehenik eta behin, errekurtsogileak eskatzen du Gipuzkoako Atletismo federazioaren hauteskunde-batzordearen erabakia, lehendakaria behin betiko izendatzeko dena, deuseztatzea, errekurtsogileak uste duelako lehendakaria izendatzeko jarraitutako prozedura ez dela egokia, batez ere lehendakari izateko hautagaitzarako aurkezteko ereduari buruzko erabakirik ez dagoelako (ez dago errekurtsogilearen ustez), ezta GAFeko lehendakari izateko hautagaitza behin-behineko gisa izendatzeko erabakirik eta behin-behineko onarpen horren aurka errekurtsioak edo erreklamazioak aurkezteko epea irekitzeko erabakirik ere.

Horri dagokionez, GAFek alegatu du izendapena erabat erregularra izan dela eta gai hori egiaztatzeko, hauteskunde-prozesuari buruzko dokumentazio guztiaren kopia aurkeztu du.

Bi alderdien argudioak aztertu ondoren, honako hau egiaztatu da:

a) Gipuzkoako Atletismo Federazioak hauteskunde-arautegi bat dauka, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduan biltzen diren eskakizunekin bat datorrena. Agindu horren bitartez, euskal kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dira.

b) Hauteskunde-arautegiaren VII. tituluan hauteskunde-prozesuaren hedapenari buruz ezarritakoaren arabera, federazioak behar bezala hedatu du



hauteskunde-prozesua arautegi horretako 30. artikuluan ezartzen diren webguneetan txertatu baitu dokumentazioa. Izan ere, errekurtsogileak berak aurkeztu ditu www.gafatletismo.com webgunean lortutako dokumentazioaren pantaila-argazkiak.

Hedatutako dokumentazioaren artean, 2016ko uztailaren 5ean argitaratutako hauteskunde-egutegia dago. Egutegi horretan datak eta gauzatuko den prozedura zehazten dira. Kronograma horretan adierazten da 2016/08/31n ezohiko batzarraren deialdia egingo dela GAF federazioaren lehendakaria aukeratzeko, zeina irailaren 24an aukeratzeko baita; bestalde, irailaren 1ean irekiko dela lehendakari izateko hautagaiak aurkezteko epea, irailaren 13an amaituko dela hautagaitzak aurkezteko epea eta lehendakari izateko hautagaitzak behin-behinean izendatzeaz gain, erreklamazioak egiteko epea irekiko dela, eta irailaren 15ean bukatuko dela lehendakari izateko hautagaitzak erreklamatzeko epea. 2016ko irailaren 19an ebatziko dira erreklamazioak eta lehendakari izateko hautagaitzak behin betiko onartuko dira. Era berean, adierazi du hautagaitza bat bakarrik aurkeztzen bada, une horretan behin betiko izendatuko dela lehendakari.

c) GAF federazioak aurkeztutako dokumentazioaren artean lehendakari izateko hautagaitza aurkezteko eredia dago (errekurtsogileak alegatu du ez dagoela).

d) GAF federazioaren lehendakaritzarako hauteskunde-prozeduran hautagaitza bat bakarrik aurkeztu da. Hauteskunde-arautegiaren 52. artikulua arabera, *«federazioaren lehendakaritzarako hautagaitza bat bakarrik dagoenean, ez da beharrezkoa izango bozketarik egitea eta hauteskunde-batzordeak federazioaren lehendakari izendatuko du hautagaia»*. Beraz, zuzena da lehendakari izateko aurkeztutako hautagai bakarra GAF federazioaren lehendakari izendatzea.



Arautegiaren 53. artikuluan ezartzen da bozketa egin ondoren, hauteskunde-mahaiak boto-kontaktaren akta idatziko duela, eta hauteskunde-batzordeak, boto-kontaktaren emaitzak eta bozketan izandako gorabeherak biltzen dituen akta hori jaso ondoren, boto gehien lortu dituen pertsona izendatuko duela federazioaren lehendakari behin-behinean, baina hori ez da gure egoera, gure kasuan hautagaitza bat bakarrik dugulako, eta, beraz, 52. artikulua ez du eskatzen ez bozketarik, eta, horrenbestez, ezta behin-behineko aldarrikapenik ere.

LAUGARRENA.- Bigarrenik, Herrera jaunak errekurritu egin du GAF federazioaren hauteskunde-batzorde berriaren osaera. Atal honetan adierazi dugunez, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenei dagokienez, kirol-federazioen hauteskundeen alorrean, aipatutako 14/1998 Legearen 138.b) artikuluari eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluari jarraituz, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumena da «*Kirol-federazioetako hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzea eta ebaztea*».

Horren arabera, eta hauteskunde-prozesuaren fase ezberdinei dagokienez, hauteskunde-batzordea hautatzeari dagokion fasea ez dago Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenen artean. Hori dela eta, hauteskunde-batzordeko partaideen hautapena, Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Batzar Nagusiaren bidez eginga, ez dago Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenen artean. Horregatik, ez da egokia *****jaunak errekurritutako bigarren gai horren inguruan ezer adieraztea.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

2016ko urriaren 10ean, ***** jaunak 2016ko irailaren 19an Gipuzkoako Atletismo Federazioaren hauteskunde-batzordeak hartutako erabakiaren,



***** andrearen hautagaitza GAF federazioaren lehendakari behin betiko izendatzeko denaren, eta Gipuzkoako Atletismo Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 19an hartutako erabakiaren, GAF federazioaren hauteskunde-batzorde berria eratzeko denaren, aurka jarritako errekurtoa ezestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a

José Luis Aguirre Arratibel

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN LEHENDAKARIA